

Lehen euri tanta naiz

**Maider Iantzi
Goienetxe**

Luze itxarondako lehen euri tanta naiz, haur baten eskutxoan sartu dena. Zarra-zarra hedatzen naiz, umea beso zabalik dantzan ari dela, lorategi egarrituan barna. Eguzkiarekin kukua, ortzadarra naiz, zerura begiratzen duenarentzat behintzat.

Hotza naiz, iluna. Lepoko uzkurdua eta bihotzeko zitzada. Hutsa, barrurako deia, be-roaren ametsa. «Negua ez da urrun» igar-tzen duzun une zehatz horixe. Urtero senti-tzen duzu eta ez dakizu gustatzen zaizun ala ez. Ekaitzekin antzeko zerbait gertatzen zaizu: maite dituzu baina beldur puntua ematen dizute, trumoiak baino gehiago txi-mistek. Trumoiak zakur zaunkariak dira, txi-mistak ausikilariak. Trumoiak belarriak estali

gabe entzun ditzakezu, baina tximistekin begiak ixten zaizkizu, automatikoki.

Grisa naiz, lainoa, esna egiten den loa. «Egunero argitzen du egunak» errana egia ez den froga. Pisua eta batez ere karga. Nahi eta ezina, eta ondoriozko haserrea. Tristura-ren gordelekua.

Badira hasi beharko ez luketen egunak, le-henbailehen amaitzeko desioa baino ekar-tzen ez dizutenak, «bihar bertze egun bat izanen da» esperantzari helduta.

Hori ere banaiz, esperantza: eguzkia, argia, goxotasuna, poza, isiltasuna eta musika. Gauzak bere lekuan dauden momentuak: garrantzitsuak alde batean eta huskeriak bertzean. Lasaitasuna, arintasuna, inspirazioa. Eta inspiratzen

zaituzten pertsonak ikustea. Motiborik gabe eskapatzen zaizun irria. Zure sua.

Opor sentsazioa: paseo bat bizikletan, ordua atzentzea, lurrean egotea, josta-tzea, benetako elkarrizketa bat.

Egunerokoa naiz eta, aldi berean, mi-raria. Beti ezberdina. Hain zuzen ere, egunerokoa izateagatik ez naute mirari-tzat hartzen, ez dituzte izaten ditudan aldaketa guztiak sumatzen, ez naute be-te-betean gozatzen. Inor bizi daiteke etengabe harritzen? Eta, hala ere, eskue-tan sartu zaizun euriak badu magia, busti zintuen lehen tanta hartatik mun-duak hamaika buelta eman dituen arren.

Aurrerabidea baino, itzulera naiz, •

Statkraft vs GHK

**Xabier Mikel
Errekondo**

Ni ez naiz fio enpresa honetaz, eta horretarako nahikoa dut datu objektiboei erreparatzea. Publikoa dela-eta politikari-ek bendizio guztiak eman dizkiote norve-giar enpresa erraldoiari eta nik ez dut ongi ulertzen alderdien halako harrera bigun eta abegitsua; esaterako, non da bermeen eskari zerrenda? Izan ere, era-kunde publikoa izatea tresna bat baino ez da eta ez ditu bermatzen oinarritzko politika sozialak, ez ingurumenaren zaintza, ez ekonomia solidarioa, ezta energia berriztagarriak ere. Nago era-kunde publikoenak parlamentuak eta udalak direla, herritarron parte-hartze zuzenetik osatuak. Bada, GHK Gipuz-

koako hondakinak kudeatzeko lurral-deko administrazioek, GFA buru, eratu-tako elkarte publikoa da baina gipuz-koarron osasuna kaltetzen duen erraustegia ezarri egin du inolako “au-zolan” edo parte-hartze sozialik gabe, martxan jarri eta kito.

Erkidegokoak ez dira lehenak, 2020tik hainbat proiektu galant bul-tzatzen ditu Statkraftek Galizian zein Katalunian. Ingurumenarekin errespe-tuz aritzea al da Galiziakoan babestuta-ko lurrei eragitea? Edo tokiko gizartearen alde egitea al da Generalitatea zorrotz ari delako proiektuak elkartzea 50 MW gairatutako eta Madriletik bi-deratzea? Prezio merkeak izango dira

guztiontzat ala Iberdrolak eskaintzen duen eran “bonu sozialak”? Pobrezia energetikoari zer aterabide? Honetaz guztiaz zer exijitu diote txalotu duten alderdiek? Burujabetza energetiko-rantz urratsa izango da ala mendekota-sunean iltzatzekoa?

Nago ia 100 milioi euro inbertituko duen enpresa batek kudeaketaren kon-trola beste inoren esku uzteko ez duela izango inolako asmorik, eta politika so-zial eta berdea axalekoa baino ez duela eskainiko.

Nahiago nuke oker banengo, gustura irentsiko nituzke ene hitz hauek. Berri Txarrak-ek abesten duen bezala, «den-bora da poligrafo bakarra...». •